



■ HERNANI ERABAKI

Bilera, Zikuñagan

Aurrekontu partehartzaileetako azken fasean sartuta, bilera egingo da gaur Zikuñagan, 19:00etan, martxan jarriko diren proiektuak zehazteko. Haur-tzaindegi zerbitzua izango da. ■

■ HEZKUNTZA
BATZORDEA

Matrikulazio datuak aztergai

Hezkuntza Batzordea bilduko da gaur udaletxean, 18:30etan, 7 gairi buruz aritzeko. Tartean, Hernaniko ikastetxe eta hezkuntza mota guztietako zentroetako matrikula datuak aztertuko dituzte. Baita haur eta gazteei zuzendutako hainbat programetan parte hartzea ere. ■

■ MENDIRIZ MENDI

Izen ematea, Tubobiderako

Igandean, 07:00etan abiatuta, Tubobidera (Aizkorri) irteera antolatu du Mendiriz Mendik. Gaur eta bihar eman daiteke izena, 20:00etatik 21:00etara bulegoan; bazkideek, 11 euro eta ez direnek, 14 euro. ■

■ EZKONTZA FEMINISTA

Aldarrikapen festa, etzi

Ezkontza Herriko Feminista bat ospatuko da larunbat honetan Hernanin. 12:00etan kalejira egingo da; 14:00etan bazkaria, Atsegindegian (izen emateak, 25 euro); 16:00etan zeremonia; 18:00etan Kaxianoren Alabak berbera; 22:00etan Pottors ta Klitoren kontzertua gaztetxean; eta 23:00etan Dj Gurebesta. ■

■ GOBERNU BATZORDEA

Auzolana sustatzea aztergai, bihar

Bihar bilduko da Gobernu Batzordea, goizeok 09:15etan alkatetzan. Besteak beste, auzolana sustatzeko diru laguntzaren bigarren deialdia argitaratzeko proposamena aztertuko dute. Bestalde, lizentzia eskera bat eta Estubegiko urbanizazio proiektuaz ariko dira. ■

■ BIZILAGUNAK EKIMENA

«Etxeko atea irekitzea ideia indartsua da»

Azaroaren 23an egingo da aurten Bizilagunak ekimenaren barruan antolatutako bazkaria: atzerriko eta bertako familiak bazkari baten bueltan elkartzeko da asmoa. Izen ematea irekita dago.

BIZILAGUNAK ekimena martxan dago beste urte batez. SOS Arrazakeriak antolatzen du, eta Hernanin, Amherrek babesten du. Asmoa da bertako eta atzerriko familiak bazkari baten bueltan elkartzeko, elkar ezagutu, aurreiritziak puskatu eta harremanak sendotzeko.

Aurten, azaroaren 23an egingo da bazkaria, elkar ezagutuko duten bi familietako baten etxean. Izen ematea irekita dago, eta familian, bikoteka edota lagun taldeka eman daiteke izena: 943 32 18 11 edo info@mugak.org.

15 bazkari, iaz

Lehenengo urtean 30 familiak ezagutu zuten elkar Hernanin, 15 bazkariren bueltan. Hori-tako bazkari bat egin zuten Mikel Von Wichmann eta Maialen Auzmendik, beste lagun batzuekin. Marruekos eta Argeliako 7 lagunekin elkartu ziren haien etxean. «Batzuetan keizaten gara atzerriarrak elkarren artean ibiltzen direlako, eta ez direlako irekitzen. Baina guk gauza bera egiten dugu. Ekimen hau oso ona da harremanak egiteko eta aurreiritziak puskatzeko. Asko daukagu elkarri emateko eta ikasteko».

Txemi Apaolazak duela bi urte hartu zuen parte, emaztearekin batean. Senegaleko hiru mutilekin elkartu ziren, etxean. «Etxeko atea irekitzea sinbolikoki oso indartsua da. Lasai eta konfiantzarekin aritu ginen hizketan, beraien esperientzien inguruan, erlijioaz, dituzten beharrei buruz... Harremana mantentzen dugu. Bik Hernanin jarraitzen dute, eta hirugarrena Bermeo aldean dabil, arrantzan».



Marruekos eta Argeliako gazteekin egin zuten bazkaria lehenengo urtean.



Txemi Apaolaza 2garren aldiz hartuko du parte Bizilagunak-en.



Mikel Von Wichmann eta Maialen Auzmendik 3garren aldiz hartuko dute parte Bizilagunak ekimenean; aurten, Jon Zumalabe animatu da.

Familian, pisukideen artean edo lagun artean

Mikel Von Wichmann eta Maialen Auzmendik 3garren urtea dute aurten, ekimenean parte hartzen. «Duela bi urte gurasoekin hartu genuen parte. Nikaraguako familia batekin elkartu ginen; 3

seme-alaba zeuzkaten. Hurrengo urtean, lagunekin parte hartzea erabaki genuen».

Esperientzia polita eta aberasgarria izan zenez, aurten, Jon Zumalabe gehitu da koadrilara, ekimenean parte hartzeko. «Gazteei gustatu egiten zaigu bazkari

baten bueltan elkartzeko, eta ideia hau oso ona da elkar ezagutu, eta aurreiritziak puskatzeko. Bestela, ez genuke jakingo nola gerturatu kanpoko jendearengana. Etxeko atea irekitzea gauza pertsonala da, eta aberastu egiten du». ■

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

tripontzi
taberna

ARRAIN
FREXKOTZEKIN
EGITEN DUGU LAN!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 726

AKELENEA
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegia

Menua
Foie Micuit
Langostino entsalada
Onddo eta ahate ojaldrea
Legatza saltsan
Entrekota
Postrea, edaria, ogia, kafea

Koldo eta Ana

25€
(BEZ burne)

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Chucla Kardaberaz 48 943 551793 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA
GAUR Zerua garbi egongo da, eta tenperatura maximoak pixka bat egingo du gora. Baina minimoak jaitsi egingo dira, eta izotza bota dezake. Min.6°/Max.19°

BIHAR Goizean goiz, fresko, baina gainontzean, epelago, berriro. Zerua nahiko garbi egongo da, nahiz eta laino batzuk agertu. Min.7°/Max.23°
 (euskaime)

GAZTETU HERNANI

Zein espaziotan mugitzen dira Hernaniko gazteak?

Gaztetu Hernani parte hartze prozesuko lehenengo saioa egingo da bihar, 18:00etan Plazan. Gazteak non eta zergatik ibiltzen diren aztertuko da.

HERNANIKO Udalak, Aztike-reen batean, martxan jarri du gazteen arteko parte hartze prozesua. Asmoa da gazteekin elkartu eta beren beharrak identifikatzea, Udaleko Gazte Politikaren lan ildo zehazteko. Duela bi aste aurkeztu zuten prozesua, eta biharkoa izango da lehenengo saioa.

Espazio publikoaren erabilera, aztergai

Bihar arratsaldeko 18:00etan jarri dute zita, Plazan.

Beste hiru saio ere egingo dira: azaroaren 7an eta 21ean, eta abenduaren 5ean.

Lehenengo saio honetan espazio publikoaren eta pribatuaren erabilera inguruan ariko dira.

Non ibiltzen dira Hernaniko gazteak? Plaza, lokal, taberna, gaztetxe ala kalee-

tan? Non elkartzen dira koardilak? Zergatik? Zergatik erabiltzen dira espazio batzuk, eta ez besteak?

Horrelako galderei erantzuna bilatzen saiatuko dira, espazioaren erabilera inguruko ohiturekin mapa bat osatu ahal izateko.

Beste hiru saio

Beste gai batzuk lantzeko hiru saio gehiago egingo dira, azaroaren 7 eta 21ean, eta abenduaren 5ean. ||



ARTELATZ

Berdegunek zaintzeko kartelak ikasleen eskutik

Beraiek sortutako kartelak jarri zituzten atzo Hernaniko 4 ikas-tetxeetako ikasleek Atarrabiyo eta Ave Maria parkeetan, berdeguneak zaintzeko aholkuekin. Udalak babestuta eta Artelatz Ingurumen Zerbitzuak gidatuta, *Hi! Hernani eta Ingurumena* programa lantzen ari dira ikasleak. Bosgarren mailakoek landaretzari buruz aritu dira, eta hau izan da emaitza. ||



GOIZ EGUZKI

Burgosetik bueltan, Gabonetarako prestatzen

Goiz Eguzkiko kideak Burgosen izan ziren lehengo asteburuan. Ederki pasa zuten, eguraldi ezinhobea izan zuten, eta autobusa bete-bete eginda joan ziren, 55 bazkiderekin. Orain, Gabonetarako prestatzen ari dira: loteria salgai dute, astelehen, asteazken eta ostiraletan, 16:00etatik 18:00etara. ||

ERREMONTEA

Barrenetxea IV, Binakako Txapelketan

Galarretako gaurko jaialdian Binakako Txapelketako lehenengo partidua jokatu da: Urriza-Agirrezabala/Zeberio II-Barrenetxea IV. Beste hiru partidua ere izango dira, txapelketatik kanpo. 16:00etan hasita, Otaegi-Zubiri/Matxin VI-Larrañaga; eta txapelketako partiduen ondoren, Ezkurra-Ion/Juaristi-Etxeberria III; eta Matxin III-Aizpuru III/Etxabe II-Olazar. ||

TXANTXANGORRI

Ikastaroa, sagardoa dastatzen ikasteko

Sagardoa dastatzen ikasteko tailerra emango da Txantxangorri elkar-tan, azaroaren 5ean, arratsaldeko 19:30etan. Izena eman daiteke, 5 euroren truke. ||

ELUR TXORI

Sagardo Txapelketarako izen ematea

Azaroaren 8an Sagardo Txapelketa ospatuko dute Elur Txorin, 20:00etan. Bazkideek zabalik dute izena emateko epea, azaroaren 3ra arte, eta hortik aurrera edonor apuntatu ahal izango da. Menuak 28 euro balio ditu: txorizoa, bakailua kokotxekin, txuleta eta postrea. ||

Mus Txapelketarako izen ematea

Mus Txapelketa antolatu du Elur Txorik, eta izen ematea zabalik dago, azaroaren 14ra arte. Banaka nahiz binaka eman daiteke izena. ||

ARANO

Gripearen kontrako txertoa, gaur

Gaur jarriko dute gripearen kontrako txertoa Aranon, 11:30etatik 12:30etara kontsultorioan. Izena eman behar zen aurretik: 948 51 08 00. ||

IRAGARKI MERKEAK

Hernani-Zikuñaga. 100 m2ko pisua salgai. 3 gela eta trastelekua. Kanpoaldera, kalefakzioa eta igogailuarekin. Apartakaleku pribatua. 30 m2ko garajea. 126.000 €. Deitu: 600 595 890

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

MODA PASARELA HERNANI

2014ko URRIAK 24
 20:00 ATSEGINDEGI
 SHALA DANTZA TALDEAREN EMANALDIAREKIN
 ANTOLATZAILEA: BERRIAK

300 € DESKONTU BALEETAN
 ZOKKETATZEN DITUGU GURE DENDETAN GASTATZEKO **3000 €**